

ESAERA ZARRAK

- 1.- "Urriko tenporetan zer aize, negu guztian alaxe".
- 2.- "Tripa utsa, entendimentu argia".
- 3.- "Inbiria sarna ba'litz, makiña bat sarnoso legoke".
- 4.- "Burrurik eza, bildurrik eza".
- 5.- "Asiak dirudi amaia, amaiak urregorria".
- 6.- "Tentaziñoak darakus nor nor dan". (Añibarroren liburu batetik artuta).
- 7.- "Urrilleko lanetan, agudo zopetan".
- 8.- "Agorako bidea, sasirik ez".
- 9.- "Lan baratza, lan aratza".
- 10.- "Utsak, onak obeagaitik".
- 11.- "Ala ez ba'litz, ala gerta dadilla".
- 12.- "Lastozko buztana daukana, suaren bildur".
- 13.- "Goizeko laiño gorri, gaueko iturri".
- 14.- "Urruneko eltzea urrez, gerturatu orduko lurrez".
- 15.- "Ogi gogorrari, agin zorrotza".
- 16.- "Abenduko eguna, argitu orduko illuna".
- 17.- "Abendua, jai uts eta gau uts".
- 18.- "Zozoak beleari ipurbeltz".
- 19.- "Nerea nere eta zurea gure".
- 20.- "Eskerrik asko Mari Belaskol Okela gutxi eta salda asko".
- 21.- "Do, re, mi, anka oker ori. Fa, sol, la zuzendu zaíola".
- 22.- "Ez benetan, ez olgetan, ez norbere berbetaz egin ixekan".
- 23.- "Paparduak lez, an zarean lakoan emen".
- 24.- "ESAERA ZARRAK, GUZURRIK EZ".
- 25.- "Kalean gertatzen dana ixiltzea, eziñezkoa biurtzen da".
- 26.- "Gauza zarrari, adabu zarra".
- 27.- "Oillaskoari muzin, zaldizkoari ezin".
- 28.- "Zelako jaubea, alako tresnea".
- 29.- "Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan artu".
- 30.- "Luzaro nai ba'dozu bizi, gaztetik bear dozu asi".
- 31.- "Nai ba'dozu jan, egin bear dozu lan".
- 32.- "Lapiko txikia, laster gaiñez".
- 33.- "Odolkiak egiten diran bezelakoak izaten dira".
- 34.- "Madalena bero, agata gero".
- 35.- "Il gaiñean dagona, euliz beterik; bizi-bizirik dagona, euli barik".
- 36.- "Egia, erregarria".
- 37.- "Dirua nun dan, biotza bertan".
- 38.- "Abarrots aundi, intxaur gitxi".
- 39.- "Etxean daukana, ez dauko erosterik".
- 40.- "Gizona gizon bear dik beti, andreak joko ba'du ere".
- 41.- "Jaiotzen danak bizi nai izaten ornen du".
- 42.- "Idi zarrak ere ondo janda deskantsuan egon ezkerro, ipur-saltoka asten dituk".
- 43.- "Zaldizkoa nai, ta azkenean oiñezkorik ere inguratu ez".

- 44.- "Esandako berbea eta ixuritako ura, ezin dira batu".
- 45.- "Zarren itzak, zentzundun itzak".
- 46.- "Bakoitza beretzat, Jaungoikoa guztientzat".
- 47.- "Gaiztoa, gaiztakeriak berarekin".
- 48.- "Arrotzak, eskua latz".
- 49.- "Azi gaiztoa, bera sortzen".
- 50.- "Etxe utsa, asarre utsa".
- 51.- "Aditzale onari, itz gutxi".
- 52.- "Lur biguñean, zulo aundia".
- 53.- "Lotsagabeak, erria bere".
- 54.- "Ustea ez da jakitea".
- 55.- "Nori berea, da zuzenbidea".
- 56.- "Oloarl oloa, astoari lastoa".
- 57.- "Urri baiñan ongi".
- 58.- "Aberats izatea baño, izen ona obeago".
- 59.- "Oitura gaiztoa, berandu aztua".
- 60.- "Mendia mendiaren bearrik ez, gizona gizonarena bai".
- 61.- "Aizeak negua dakar".
- 62.- "Utzi zak ona, ohea artzeko".
- 63.- "Sugabeko etxea, gorputz odolgabea".
- 64.- "Etxe guzitan, laratzak beltzak".
- 65.- "Zakur aundiak, zaunka aundia".
- 66.- "Neke ondoren, poza".
- 67.- "Auntza larrera".
- 68.- "Norberak nolako, besteak uste alako".
- 69.- "Egia da latz eta garratz".
- 70.- "Ez itz egin, ez ba'da nai uts egin".
- 71.- "Jaio zera, ilko zera".
- 72.- "Berbarik onena, laburrena".
- 73.- "Itzontzi, utsontzi".
- 74.- "Azilla otz, negua motz, azilla bero, negua gero".
- 75.- "Zu zaran tokian, ez da koiperik faltako".

MALAX-ETXEBARRIA'TAR JON